

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroko Gobernuak eta CANK sektore bioteknologiarekiko konpromisoa berretsi dute

Bi erakundeek sektore horretako enpresa berrietan edo berriki sortu direnetan inbertitzea aztertzen ari dira, Moderna Planarekin bat eginez

Jueves, 09 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak, SODENA Nafarroako Garapen Sozietatearen bidez, eta Caja Navarrak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute gaur. Hitzarmen horren xedea da, sektore bioteknologikoan bi erakundeek identifikatu dituzten inbertsio-aukerak elkarrekin aztertu eta ikertzea; horrekin batera, enpresako ahaleginak eta sinergiak batzea, eta izan daitezkeen inbertsioak hauteman eta kudeatzeko prozesuari jarraipena ematea.



Pascual eta Roig kontseilariak, Gobernuaren eta CANKren ordezkaritzan, lankidetzeta-hitzarmena sinatzen.

Akordioa sinatu dute, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu jarduneko kontseilari eta SODENAKo presidente Jose M^a Roig Aldasorok eta finantza-erakundeko ordezkarikari gisa, Caja Navarrako idazkari nagusi Alberto Pascualek.

Ekitaldian izan dira SODENAKo Ekintzen Koordinazioko arduradun M^a Eugenia Lecumberri eta CANKo Korporazio Operazioen zuzendari Javier Martínez Escudero.

Akordioaren oinarritzko helburua, sortu berri diren edo jada badiren enpresa bioteknologikoak bultzatzea da, Nafarroan kokatuko direnak. Horrek sektorean espezialistak erakartzea ekarriko du, bai eta Foru Erkidegoan sektorearen garapen integrala ekarriko duen inbertsioa erakartzea ere. Bultzada horrekin terapeutika-molekulak gara ditzaketen konpainia jakin batzuk identifikatuko dira, eta konpainien gaitasun guztiak abian jarriko dira garapen aurrekliniko eta klinikoa egiteko eta, azkenean, merkaturatze-fasera heltzeko.

Nafarroako Gobernuak sustatutako Moderna Planarekin bat datorren ekimen hori, sektore horretan erreferentziak diren lurraldeen azterketa zorrotzetan babesten dira, bertan sortutako konpainien azterketetan, 2010eko erdialdean jada hasi zen mundu-mailako aukerak bilatzeko prozesu bati esker (Espainia eta AEB, batez ere). Proiektua Biolyt-rekin lankidetzan zuzendua dago, sektore bioteknologikoan espezializatutako aholkularitzarekin.

Sektorearekiko konpromisoa

SODENA 1996. urtean sartu zen bioteknologiaren munduan, Cinfa Laborategietan parte hartu zuenean. 2003. urtean, berriz, bultzada handia jasan zuen beste inbertitzaile pribatu batzuekin CIMA-DIGNA proiektuaren aldeko apustua egin zuenean. Azken proiektu hori jada finkatuta dago eta aitortpen handia du maila nazionalen nahiz nazioartean.

Azken urteotan, SODENAK kasu batzuetan Caja Navarrarekin eta beste bazkide pribatu batzuekin, Foru Erkidegoko bioteknologia-sektoreko enpresa batzuetan inbertitu du, eta funts espezializatuetan ere agertzen da. Sozietatea lanean ari da, iraganean energia berriztagarriekin bioteknologia-sektoreak izandako arrakastaren eredia errepika dadin.

Bestalde, Caja Navarrak etorkizun handiko sektore berritzaile honetan zenbait inbertsio gauzatzeko aurreikuspena du datozen hilabeteotan. Operazio horiek Nafarroako Inbertsio Planen barnean sartzen dira; haren bidez, Caja Navarrak 20 milioi euro arteko inbertsioak egingo ditu ekintzailtzako proiektu berritzaileetan eta Nafarroarako estrategia-sektoreetan, gure erkidegoan aberastasuna eta enplegua sortzen